# TOMAS TXANTXAZALEA




Testua: JORGE RICO RÓDENAS

Irudiak: ANNA LAURA CANTONE

Itzulpena: XABIER OLASO

Kartoizko azala. 22 x 22 cm. 40 or. 14 €.

**Tomas Txantxazalea** (euskara)
ISBN 978-84-9172-370-7. Amets egiteko liburuak. Egile lanak.

**Tomás el bromista** (gaztelania)
ISBN 978-84-8464-370-8. Obras de autor. Primeros lectores.

**Tomás o bromista** (galegoa)
ISBN 978-84-8464-369-2. Demademora.

**En Tomàs bromista** (katalana)
ISBN 978-84-16804-40-5. Obres d'autor. Primers lectors.

**Tomás o traquinas** (portuguesa)
ISBN 978-989-749-098-9. Obras de autor. Primeiros leitores.

**Tommaso il burlone** (italiera)
ISBN 978-88-95933-83-2. Gli albi d'autore. Primi lettori.

■ **Gaia:** Umorea, txantxak, ezustekoak, bihurrikeriak.
■ **Adin egokia:** 3 urtetik aurrera.
■ **Nabarmentzekoak:** Mozorroak, sormena, irudimena. Inauteriak, bizitza soziala, familia.
■ **Liburuaren aurrerapena:** https://issuu.com/kalandraka.com/docs/tomas-txantxazalea-eusk

*Mutiko ipurterre samarra zen Tomas, eta oso atsegin zuen ezkutatzea eta mozorrotzea etxera bisitak etortzen zirenean*

*Behin batean, Frantzian bizi zen bere amaren lagun bat etorri zen bazkaltzera. Tomas trastelekura joan, burusia hartu han, haria hartu hemen, eta krokodilo mozorroa egin zuen...*

Tomas haur geldiezina da, eta izugarri gustatzen zaio bisitak etortzen direnean mozorrotzea. Amaren lagun batek, Roberta izebak, Javier lagunak, albaitariak, ingeleseko irakasleak eta bizilagunaren semealabek etxean aurkitzen dituen objektuekin egindako mozorro bitxiak eta bihurrikeriak jasango dituzte. Krokodiloa izango ote da, lehoia, erlea, elefantea...? Gonbidatuek baina badakite azkenik barre egiten duenak hobe egiten duela barre...

Tomas txantxazaleak haurrak dibertitzeko osagai guztiak biltzen ditu, berehala identifikatuko dira kontakizuneko protagonistarekin: errimak, errepikapenak eta metatze-formulak dituen testua, eta, batez ere, umorez, ustekabez eta sormenez betea, hasieratik amaierara artekoa.

Jorge Rico Ródenasen testuaren tonu ludikoa indartu egiten da Laura Cantoneren irudien kolorearekin; collagearen teknika akuarelarekin, arkatzekin eta koloretako argizariekin konbinatzen ditu, pertsonaia dibertigarri eta bitxiak sortzeko.

### Jorge Rico Ródenas

(Elx, 1977)

Kazetaritzako eta Hizkuntzalaritzako lizentziaduna Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean. Hizkuntzalaritza konputazionalaren, hizketaren ezagupen automatikoaren eta hizkuntza naturalaren prozesamenduaren arloan lan egiten du. Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko irakasle gonbidatua da eta CSICeko Fonetika eta Fonologia masterreko irakaslea. Fonologia- eta prosodia-ikastaroak ematen ditu, zientzia-aldizkarietan artikuluak argitaratzeaz gain.

### Anna Laura Cantone

(Alessandria, Italia, 1977)

Ilustrazioa ikasi du Europako Diseinu Institutuan, Milanen, non eskolak ematen baititu. 2000. urtean argitaratu zuen bere lehen liburu ilustratua, eta hainbat lan eta kolaborazio egin ditu aldizkari espezializatuetan. Italiako eta beste herrialde batzuetako galerietako pintura eta eskultura erakusketetan parte hartu du. Besteak beste, Boloniako Haur eta Gazteen Nazioarteko Azokako Ragazzi saria eta Andersen Le Immagini della Fantasia saria jaso ditu. Boloniako Ferian, Bratislavako Ilustrazioko Biurteko Azokan, New Yorkeko Ilustrazioko Elkarte Amerikarrean eta Taipeiko Liburuaren Nazioarteko Ferian hainbat aldiz hautatu dute. Marrazki bizidunen serie eta film batean ere parte hartu du.




www.Pamiela.com
soltxate@pamiela.com

www.Kalandraka.com
comunicacion@kalandraka.com